

## ADINEKO PERTSONAK, DESGAITASUNA ETA MENPEKOTASUNA

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsoneri eta beraien senideei zuzendutako zerbitzua da. Etxean bertan laguntza eskaintzen da eta ahal den bitartean norberaren etxean bizitzen jarraitzea ahalbideratzen du.

- [Eguneko zentroa](#)

2004ko uztailean ireki zen zerbitzu hau. 25 plaza ditu eta Itsas Etxeko eraikuntzan, beheko solairuan kokatuta dago. Zerbitzuak: menpekotasun egoera batean aurkitzen diren adineko pertsonentzako eguneko atentzioa eta zaintza; gosaria eta bazkaria; garraioa; ekintza pertsonalizatuak; mantentzeko gimnasia.

- Telelaguntza

Pertsoneri eta euren senideei segurtasuna eta berehalako laguntza eskaintzeko zerbitzu bat da. Tresna berezia da, larrialdi edo egoera irregular batean dei bat egiteko aukera ematen duena. Tresna honek sakagailu bat dauka. Egindako deia SOS-DEIAK zerbitzuak hartzen du. Horrela, eskaera jasotzen duenean, arazoa konpon dezakeen pertsona edo zerbitzuarekin harremanetan jartzen da (familia, medikua, ambulanzia...).

- Sendian programa

Sendian programaren helburua etxean adineko ezinduak zaintzen dituzten pertsoneri laguntzea da.

### **Zerbitzuak:**

- Familientzako prestakuntza. Adineko ezinduak dituzten familiei laguntzeko bereziki prestatutako ikastaroak dira, familiei zeregin hori behar bezala egiten erakusteko.
- Laguntza taldeak. Adineko pertsona ezinduak zaintzen dituzten pertsoneri elkar ezagutu eta hitz egiteko aukera ematen zaie, egoera berean dauden beste pertsona batzuen berri izan eta babestuta sentitzeko.
- Laguntza psikologikoa. Tratamendu psikologikoa eskaintzen da, banakako saiotan, egoera berriak eta aldakorrak hobeto gainditzeko, familiako zaintzaileengan sortzen diren estres eta larritasun sentimenduak kontuan hartuta.
- Aldi baterako egonaldiak. Zerbitzu horrekin familiei atsedeen hartzeko eta beste gauza batzuetarako denbora izateko aukera eman nahi zaie, zaintza lanak alde batera utzita.
- Adineko egoitzak

Egoitza hauetan bizilekua, mantenua eta zaintza ematen zaie. [Honako zerbitzu hauek](#) eskaintzen dituzte:

- Ostatu zerbitzuak.
- Zaintza pertsonaleko eta banakako laguntza zerbitzuak.
- Mediku eta erizaintza zerbitzuak: balorazioa eta jarraipena.
- Zerbitzu psikosozialak.

- [Aldi baterako egonaldiak](#)

Zerbitzu honen bidez etxean mendekotasun egoeran bizi diren pertsonak aldi baterako egoitza zentro batean sartzen dira zaintzan dauden familiei atseden-aldia eskainiz.

- [Laguntza teknikoak](#)

Etxean eta ingurunean irisgarritasuna, mugikortasuna eta zaintza bermatzeko gailuak osatzen duten laguntzak dira (ohe artikulatuak, dutxarako aulkiak, gurpildun aulkiak, ibilgailuen egokitzeak e.a.) Helburua bizi-kalitate hobetzea da eta eguneroko gauzak egiteko autonomia erraztea.

- Babespeko apartamentuak

2006an ireki ziren. Sei apartamentu daude. Adineko pertsonentzat dira. Autonomoak edo 1 graduko menpekotasuna izanda, beren etxebizitzan jarraitzeko zailtasunak dituztenentzat dira (etxea egoera txarrean dagoelako, elkarbizitza arazoak daudelako, etxebizitza utzi beharrean daudelakoa) Familiarik ez duten edo gizarte babesik ez dutenentzat dira.

- Mendekotasun Legeak jasotzen dituen diru-laguntzak

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean onartutako prestazio ekonomikoak honako hauek dira:

- [Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa](#): Familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa da. Diru-laguntza hau mendeko pertsona zaintzeaz arduratzen den eta bizikide den familia inguruneko senitartekoei zuzenduta dago.
- [Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa](#): Mendekotasuna duen pertsonari, eguneroko bizitzan laguntza emateko familia artekoa ez den pertsona baten kontrataziorako laguntza ekonomikoa da.
- [Zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa](#): Foru Aldundian egoitza edo eguneko zentroko plaza publikoa eskatu eta plazaren zain egon bitartean modu pribatuan kontratatutako plaza baten kostuarekin laguntzen da.

## **FAMILIAK, HAURRAK ETA GAZTEAK**

Beharrezkoa den kasuetan, esku-hartze psikosozial eta/edo gizarte eta hezkuntza eskuhartzeak bideratzen dira familietan psikologia eta hezkuntza profesionalen laguntzarekin.

- Adin txikikoen arrisku egoera baloratu eta aholkularitza zerbitzua eskaini

Familiei aholkularitza eta orientazioa eskaintzen zaie haur eta nerabeen arrisku egoerak ekiditeko eta beharrezkoa bada esku hartzeko. Beharrezkoa denean, osatzen den balorazioan oinarrituta, zerbitzu espezifikoak martxan jartzen dira.

- Esku-hartze familiarra eta laguntza psikologikoa:

Beharrezkoa den kasuetan, esku-hartze psikosozial eta/edo gizarte eta hezkuntza eskuhartzeak bideratzen dira familietan psikologia eta hezkuntza profesionalen laguntzarekin.

## **GIZARTERATZEKO BALIABIDEAK**

- [Gizarte bazterkerian balorazioa](#)

Balorazioa, bazterkeria egoera eta maila identifikatzeko tresna da, eta pertsona edo familiari prestazio eta zerbitzu egokienak eskaintzeko aukera ematen du. Eskaera, oinarritzko gizarte zerbitzuetan egiten da eta aldundiak balorazio espezializatua gauzatzen du.

- [Egoitza zentroak](#)

Elkarbizitzako zentroak dira, ostatu zerbitzua emateko -intentsitate erdiko edo altuko laguntzekin- gizarte eta harreman narriadura larriak dituzten pertsoneri, gizarteratzera bideratutako esku-hartzeak gauzatzen dira.

- [Gizarteratzeko eguneko zentroak](#)

Ikuspuntu integral batetik, eguneko arreta eskaintzen duen gizarte txertaketara bideratua dagoen zerbitzua da. Arlo okupazionalak, hezkuntzakoak, terapeutikoak eta gizarteratzekoak nahiz laneratzekoak jorratzen dira.

- [Laguntza espezializatua](#)

Profesional kualifikatu baten laguntzarekin pertsonaren autonomia hobetzea du helburu. Akonpainamendu espezializatuak aukera ematen dio erabiltzaileari bere egoera kontrastatzeko, autonomia pertsonalari eta gizarteratzeari buruz dituen helburuak esplizitatzeko, eta prozesu guztian zehar erreferentziako pertsona bat izateko.

## **PRESTAZIO EKONOMIKOAK**

- Gizarte larrialdiko laguntzak

Aldian aldiko diru laguntzak, gizarteak baztertzeko egoerei aurre egin edo arintzeko. Beharrezko gastu zehatzak ordaintzeko dira.

- **Udal diru-laguntzak**

Gizarte-babeserako beste sistema publiko batzuek estaltzen ez dituzten beharrei aurre egitea dute helburu. Udal laguntzak ez dira aldizkakoak. Gastu zehatzei, ohiko edo ez-ohikoei aurre egiteko baliabide eskasak dituzten familia edo pertsonei zuzenduta daude.

- [Kotizatu gabekoen pentsioak](#)

Oinarrizko beharrak asetzeko aldi baterako ematen den laguntza da. Hartzaileak baliabide ekonomiko gutxiko herritarrak dira. Gutxienezko bermatzeko laguntza da eta beste diru sarrera batzuk izanez gero, gehienez bermatutako diru-kopurura artekoa ordaintzen da. Bi modalitate daude:

Jubilazioagatik kotizatu gabeko pentsioa.

Ezintasunagatik kotizatu gabeko pentsioa.

- [Gizarte Ongizateko Fondoa](#)

Lanerako ezintasuna duten pertsonentzat eta diru baliabide gutxi dituzten adineko pertsonentzat dira.

## **INDARKERIA MATXISTA ETA SEXU ERASOAK**

- **Harrera zerbitzua:** informazioa, orientazioa eta aholkularitza.

Arlo honen helburua indarkeria edo sexu erasoak jasan dituzten edo jasaten ari diren pertsonei laguntza integrala ematea da.

- [Laguntza psikologikoa.](#)

Indarkeria matxista jasandako emakumeei eta indarkeria horren eraginpean dauden seme-alaba adingabeei laguntza psikologikoa ematea, indarkeriaren ondorioei tratamendua emateko eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko, horrela beren bizitzen gaineko kontrol hobea izan dezaten.

- [Laguntza sozio-juridikoa](#)

Izaera juridikoko laguntza bat da, indarkeria matxistako egoerak direnean baliabide juridikoen bidez esku hartzeari eta erabakiei buruzko informazioa eta orientabidea ematen duena.

## **ELKARTE ETA HERRIKO ETA GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEENTZAKO ZERBITZUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK**

- Irabazi asmorik gabeko gizarte- eta osasun-elkarteei ematen zaizkien urteroko udal laguntzak.